

Lan-baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!

"pertsona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdinzalea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetza), ikuspegi kritikoa eta elkartasun internazionalista sustatuko dituen, hezkuntzaren etapa guztietan, bai derrigorrezkoetan eta bai derrigorrezkoak ez direnetan.

Hezkuntza sistema propioa izango da eta euskal curriculum deritzana garatuko du. Zeharkako eran, hezkuntza emozionala ere hartuko du barne eta pertsonen jardura kritiko eta sortzaileak bultzatuko ditu.

Euskararen ezagutza eta erabilera bermatu behar zaizkie ikasle guztiei. Euskalduntzerako eskubidea bizitza osoko eskubide bat da"

Honela dio Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak. Azken urteotan aldiz, Iruñea eta Gasteizko gobernuek ezarritako murrizketek, hezkuntza inbertsio erabat eskasek eta inposaturiko hezkuntza erreforma basatiek guztiz kontrako norantzan kokatu gaituzte.

Ondorioz, EAEn eta Nafarroan behar dugun hezkuntza sistemaren bidean eman beharreko urratsen egoera oro har eta gaur egungo hezkuntza publikoarena, modu berezian, larria da. Sindikatuok ezinbestekotzat jotzen dugu egoera honi buelta eman eta gure hezkuntza sistemaren garapena eta eraikuntza sendotzea.

Proposatzen dugun hezkuntza sistema berri horren bidean nahitaezkoa da hezkuntza publikoan negoziazio kolektibo eskubidea berreskuratu eta lan-baldintzak nabarmen hobetzea. Azken urteetako murrizketen ondorioei aurre egiteko ondorengo neurriak exijitzen dizkiegu gure gobernuei:

- EAEko hezkuntza publikoko plantilak gutxienez 2.000 langiletan handitu behar dira kolektibo ezberdinetan eta Nafarroan 900 langiletan.
- Batz-beste ia %40ko behin-behinekotasuna (%38 irakasleetan, %57 Haurreskoletan, %58 Heziketa Berezian eta %63 Sukalde eta Garbiketean), %6ra murriztu behar da, Nafarroan 1.800 lanposturik gora egonkortuz eta EAEn 6.000tik gora kolektibo ezberdinetan.
- Gelako ikasle kopurua %10 murriztu behar da.
- Hezkuntzako langileen eroste ahalmena berreskuratu behar da.
- Ordezkapenak lehen egunetik egitea premiazkoa da.
- Bajak bere osotasunean ordaindu behar dira, gaixotzen diren langileak zigortzeari utziz.
- Erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratu behar dira.

Adierazitakoari erantzuteko eta gure herrian hezkuntzaren garapen eta eraikuntza bermatzeko ezinbestekoa da erabat eskasa den hezkuntza inbertsio publikoa (BPGren %3,1 Nafarroan eta %3,5 EAEn) handitzea, EHko Karta Sozialean jasotako hezkuntza publikoaren norabidean urratsak ematea ahalbidetzeko gutxienez Europako batz-bestekora parekatuz eta progresiboki BPGren %6ra iritsiz. Hezkuntza berdintasuna, justizia soziala, integrazio eta gizarte kohesioa bermatzeko oinarritzko tresna da.

Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza behar bereziei modu egokian aurre egiteko baliabideak gehitu eta bermatzea.

Honekin batera ezinbestekoa deritzogu gure hezkuntza sistema txikitzen, erabat mugatzen eta desarautzen duen LOMCE Euskal Herriko gure ikastetxeetatik ateratzea eta EAEn honen moldaketa hutsa den Heziberri bertan behera uztea. Balizko Hezkuntza Legeen aurrean langileen ordezkariok zer esana badugu, hezkuntza eragile garen aldetik. Honen inguruan beharrezko ikusten dugu herri hausnarketa ariketa bat egitea herri mailako eragile guztien parte-hartzea bermatuz.

Hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera uztea eskatzen dugu, egungo desorekak gaindituz hezkuntza garapen pertsonal eta sozial integralerako tresna izan dadin, kohesio soziala eta integrazioa bultzatuz, aniztasuna, berdintasuna eta hezkidetzaren oinarri.

Euskararen ezagutza nahikoa bermatzen ez duten politika eta hezkuntza ereduak gainditu eta tokian tokiko errealitatera egokituz ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen euskarazko murgiltze ereduak garatu behar da.

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuoi egungo egoera guztiz onartezina egiten zaigu. Hori dela eta, sindikatuok gainerako hezkuntza eta gizarte eragileekin elkarlanean mobilizazio fase bat garatu nahi dugu Iruñea eta Gasteizko gobernuei orain arteko politikak alde batera utzi eta aurrez adierazitako puntuak ardatz izango dituen hezkuntza politika gara dezaten eskatzeko.

EAEn martxoaren 22an greba deitzen dugu unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan eta gobernuak adierazitako bidean pausorik ematen ez badu hurrengo hilabeteetan greba eta mobilizazio dinamika areagotuko dugu.

Nafarroan ere, momentu honetan gobernuarekin irekita dagoen negoziazio prozesuak adierazitako bidean pauso esanguratsurik bermatzen ez duen heinean mobilizaziora joko dugu.

Euskal Herrian, 2017ko otsailaren 16an

